# HAZINNOVA



## Zure ETEak hobetzeko behar duen laguntza

innobasque
Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación

GRUPO spri TALDEA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE



HAZINNOVA

**Hazinnovak** berrikuntza-proiektuak modu praktiko, azkar era errazean gauzatzen laguntzen dizkie ETEei.



# HONAKO HAU NAHI BADUZU



- Zure enpresaren **errentagarritasuna** hobetu
- Prozesuen **efizientzia** hobetu
- **Gastuak** eta entrega-**epeak** murriztu
- Enpresako pertsonak **motibatu**
- **Merkatuko kuotak** igo
- Bezero-**segmentu berriak** aurkitu
- Zure **jabetza intelektuala** babestu
- Produktu edo zerbitzu berriak **diseinatu**
- **Beharrizan teknologikoak** zehaztu

# HONAKO HAU ESKAINIKO DIZUGU

- 50 orduko aholkularitza espezializatua eta doakoa, 3 hilabeteko epean emaitzak lortzeko
- Laguntza pertsonalizatua, prozesu osoan zehar
- Gutxieneko administrazio-karga



# GUK LAGUNDUKO DIZUGU

## Zure enpresak 5 langile edo gehiago baditu eskabidea aurkezteko unean, Euskadin badago eta honako sektore hauetako batekoa bada:



**Industria:**

- Manufaktura-industria
- Erauzketa-industriak
- Energia-hornidurak
- Uren eta hondakinen kudeaketa

**Zerbitzuak:**

- Industrialari lotutako zerbitzuak
- IKTak
- Telekomunikazioak
- Handizkako merkataritza
- Garraioa
- Biltegiratze-lana
- Finantza-jarduerak
- Aseguruak
- Edizioa
- Arkitektura
- Publizitatea

**Berria!**

Enpresa parte-hartzaileak Innobideak eta/edo Hazitek programen onuradun izan daitezke.

# OSO ERRAZA DA HAZINNOVAREN ONURADUN IZATEA

**1. Agente**

Identifikatu zure Hazinnova agentea. Esteka honetan aurkituko duzun inprimakia betez egin dezakezu:

www.spri.eus/es/ayudas/hazinnova/

**2. Beharrizana**

Zure beharrizanak identifikatu eta zehaztu zure agentearekin

**3. Definizioa**

Definitu berrikuntzarako mikropoiektua zure agentearekin eta esleitu zaizun aholkularitza-zerbitzuarekin

**4. Ezarpena**

Abiarazi zure mikroproiektua

**5. Emaitzak**

Gauzatu zure proiektua 3 hilabetetan

Hazinnovarentzat proiektuak aurkezteko epe bukaera

**2023ko urriaren 26a**

50 orduko aholkularitza eta laguntza zerbitzua eskainiko dizugu doan. Zure agenteak eskainiko dizu, proiektuaren fase guztietan.

# GEHIAGO JAKIN NAHI?

## Hazinnovak honako esparru hauetan ematen dizu laguntza:



### Berria!

ETEek gehienez 2 mikroproiektu egin ditzakete, baita lote berekoak ere, baldin eta gai berekoak ez badira.

## 01 EKONOMIKO FINANTZARIOA

### Nola hobetu enpresaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta nola kontrolatu haren errentagarritasuna?

- **Plangintza:** etorkizuneko planek eurotan izango duten eragina eta oreka ekonomiko-finantzarioa aztertzea hainbat agertokitan.
- **Adierazleak aztertzea/aginte-koadro bat sortzea**, erabakiak arrazionalizatzeko informazioa emango duena.
- **Diruzaintzaren kudeaketa**, likidezia, kaudimena eta zorraren birfinantzaketa.
- **Kostuen kontrola eta** enpresaren **errentagarritasuna hobetzea.**
- **Marjinen jarraipena**, produktuaren, zerbitzuaren eta merkatuaren arabera.
- **Kostuak** eta tarifak **kalkulatzeko irizpideak** berrikustea.
- **Aurrekontuak eta** salmenta-**prezioak kalkulatzeko** tresnak.
- Kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta estrategikoa nabarmen hobetuko duten **irtenbide teknologiko berriei** buruzko **premia- eta bideragarritasun-azterlanak.**

# 02 BARNE ADMINISTRAZIOA

## Nola hobetu administrazio prozesuak enpresetan eraginkortasun handiagoa lortzeko?

- Administrazio-kudeaketa automatizatu eta nabarmen hobetuko duten **irtenbide teknologikoei** buruzko (ERP, CRM, oporrak kudeatzeko tresna, etab.) **premia eta bideragarritasun-azterlanak**.
- Administrazio-prozesuetan irtenbideak ezartzen dituzten **hornitzaile teknologikoak bilatzea**.
- Enpresaren **prozesua berrikustea**, eraginkortasunik eza identifikatzeko eta irtenbideak bilatzeko Value Stream Mapping (VSM) aplikatuta.
- Prozesuen **rol eta ardurak berrikustea**.
- Administrazio-**datuak kudeatu eta ustiatzeko estrategia garatzea** (adib., Power BI, QlikView, …)
- Prozesuetarako **KPIak definitzea eta jarraipen-metodologia egitea**.
- **Proiektuak** eta lana **kudeatzeko eredu berriak ezartzea**.
- **Prozesuak kudeatzeko estrategia garatzea**, negozio-eredua berrikusita.

# 03 EKOIZPENA

## Nola optimizatu prozesuak ETE-en produktibitatea, kalitatea, jasangarritasuna eta segurtasuna handitzeko?

- **Lean proiektu** bat ezartzeko ibilbide-orria diseinatzea.
- **5S ordena- eta garbiketa-metodologia** ezartzea.
- **Mantentze-lan autonomoa** ezartzea.
- Enpresaren **ekoizpen-prozesua optimizatzea eta hobetzea** (layout).
- **Lean Manufacturing pilotua** ezartzea.
- **Fabrikako ekoizpenaren plangintza** hobetzea.
- Enpresaren produktibitatea hobetzea, haren prozesuak hobetuko dituzten **irtenbide teknologiko berrien** aukera barne.
- Ekoizpenaren **energia- eta ingurumen-kostuak/-inpaktuak nabarmen murriztea (ekoproduktibitatea)** dakarten hobekuntzak ezartzea.
- Aukerak identifikatzea eta **produktuaren birmanufaktura** testatzea.

# 04 LOGISTIKA

## Nola hobetu hornidura-katearen kudeaketa, inbentarioak eta bezeroaren arretarako zerbitzua, biltegiaren produktibitatea eta kudeaketa, eta nola ezagutu eta murriztu garraio eta banaketa kostua?

- **Eskariaren kudeaketa:** eskaria ezaugarritzea eta eskariaren alerta- eta AURREIKUSPEN-sistema bat definitzea. AURREIKUSPENEN kalkulua hobetzea, zaharkitzea murriztea eta zerbitzu-maila hobetzea.
- **Erosketen kudeaketa:** erosketa-prozesua berriz diseinatzea, negoziazioa eta lankidetza, erosketen ABC adierazleak. Hornitzaileen kudeaketaren eraginkortasuna hobetzea, zerbitzua hobeto betetzea eta negoziazio-posizioa hobetzea.
- **Hornikuntza eta inbentarioen kudeaketa:** inbentarioa murriztea eta zaharkitzea, zerbitzu-maila eta stock-hausturak hobetzea, errotazioa handitzea, eta jabetza- eta logistika-kostuak murriztea.
- **Biltegiaren kudeaketa:** biltegiaren produktibitatea hobetzea, akatsak eta gorabeherak murriztea, biltegiko layouta eta haren prozesuak berriz diseinatzea, biltegiratze- eta mantenu-elementuei buruzko etengabeko inbentarioa eta biltegiratze- eta manutentzio-elementuei buruzko aholkularitza, stocken fidagarritasuna hobetzea.
- **Banaketa eta garraioa:** egungo logistikaren alternatibak, banaketaren kostu logistikoa aztertzea eta hobetzea, eta azpikontratazioa kudeatzea. Bidalketen kudeaketa hobetzea eta garraioaren kontratazioa eraginkorragoa izatea, kostuak murriztuz.
- **Hornidura-katearen kostuak** eta horrek marjinean duen eragina neurtzea, hobetzeko ekintza-plan bat garatuz. SCM kostua eta logistika OROKORRA hobetzea eta kontrolatzea.

> Kasu guztietan, prozesuaren balizko DIGITALIZAZIOA aurreikusten du, parte hartzen duen enpresaren informazio-sistemako edo ERP sistemako lan-prozedura berriak abian jarrita eta/edo hura hobetzeko proposamena eginda, edo tresna ofimatikoak garatuta.

# 05 PERTSONAK

## Nola areagotu pertsonen konpromisoa eta motibazioa kudeaketaren bidez?

- **Enpresa-kultura:** lan-giroa, berdintasuna, lansarien auditoretza, kide izatearen sentimendua hobetzea
- **Profil eta lanpostu berriak definitzea:** lanpostuen/rolen deskribapena, lanpostuen balorazioa, lanbide-karreraren ereduen definizioa.
- **Soldaten politika eta ordainsarien sistema:** Ordainsarien ereduak, soldaten erregistro-orria, ordainsari aldakorra.
- **Errendimenduaren ebaluazio-ereduak:** helburuak zehaztea.
- **Barne-antolakuntza:** erakunde-egitura berriz diseinatzea, barne-funtzionamenduari buruzko gida.

# 06 BEZEROAK

## Nola handituko dugu merkatu- -kuota bezeroak ezagututa, erakarrita, artatuta edo leial bihurtuta?

- **Merkataritza-estrategia:** enpresaren hazkunde- eta hedatze-mekanismoak identifikatzea eta merkataritza-estrategia baten garapenari euskarria ematea, merkataritza-estrategia barne-mailan definitzea, Merkataritza Planaren jarraipen-tresnari euskarria ematea.
- **Bezero berriak:** bezero berri potentzialak identifikatu eta lehenestea, bezeroak segmentutan banatzea, bezero-zorroa dibertsifikatzeko estrategiari euskarria ematea.
- **Marketina eta salmentak:** enpresaren marketinaren eta salmenten estrategiaren definizioari euskarria ematea, markaren posizionamendua hobetzea, bezeroak fidelizatzeko estrategiak definitzea.

# 07 MERKATU BERRIAK

## Nola irits gaitezke merkatu edo sektore berrietara eta nola bideratuko dugu enpresaren marketina beste geografia edo bezero-segmentu batzuetarantz?

- **Merkatuaren prospekzioa** sektoreak edo lurraldeak dibertsifikatzeko estrategia bat garatzeko.
- **Merkatu-azterketak egitea** produktu eta zerbitzu berrientzat edo gaur egungoentzat. Merkatu potentzialak lehenestea.
- **Negozioa** merkatu berrietan **garatzea** eta produktu/zerbitzu berriak **merkaturatzeko planak egitea.**
- **Merkatu berrietan sartzeko** marketin-estrategiak ezartzea edo egokitzea.
- **Bezeroarekin/kontsumitzailearekin kontrastea** egitea bere produktuak merkatuan duen onarpenari buruz eta hura hobetzeko moduari buruz.
- **Online marketineko**, online salmentako eta e-commerce sustatzeko **estrategia bat garatzea.**
- Merkatu berrietan **irtenbide berdeen eskaria aztertzea** eta posizionamendu berde baten bidez sartzea.

# 08 PRODUKTUA

## Nola handitu negozio-bolumena produktu edo zerbitzu berriak merkaturatuta?

- **Produktu berria**k sortzea eta egungoak **dibertsifikatzea.**
- Merkatuaren **eskaria aztertzea** (bezeroen beharrak, legeria, jasangarritasuna, digitalizazioa, etab.), produktu berriak identifikatzeko.
- **Egungo produktuak** enplegatu, bezero eta abarrekin **aztertzea**, funtsezko hobekuntza potentzialak identifikatzeko.
- **Produktu berri potentzialen zorroa** (ondasunak eta zerbitzuak) **aztertzea** eta lehenestea.
- **Produktu berrien kontzeptua garatzea** eta tartean dauden eragileen mapa egitea (hornitzaileak, merkataritza- eta teknologia-bazkideak, etab.).
- Funtsezko hobekuntzen edo identifikatutako produktu berrien **bideragarritasun-azterketa**.
- Produktu berrien **salmenta-dokumentua** garatzea, bezero potentzialei erakusteko.
- Produktu-ideia potentzialak edo prototipoak **bezeroekin baliozkotzea eta testatzea**.

# Hazinnovara atxikitako agenteak 2023

## SEKTORIALAK

- ACLIMA – BASQUE ENVIRONMENT CLUSTER
- AFM – CLUSTER DE LA FABRICACIÓN AVANZADA Y DIGITAL
- AVEQ-KIMIKA – ASOCIACIÓN DE EMPRESAS QUÍMICAS DE EUSKADI
- BASQUE FOOD CLUSTER
- BERRIKUNTZAREN EUSKAL AGENTZIA, INNOBASQUE
- CECOBI – BIZKAIKO MERKATARITZAKO ENPRESARI KONFEDERAZIOA
- CLÚSTER VASCO DE FUNDICIÓN Y FORJA (FEAF-AFV)
- ERAIKUNE – CONSTRUCTION CLUSTER
- FORO MARÍTIMO VASCO (FMV)
- FVEM – METALEKO LANTEGIEN BIZKAIKO FEDERAKUNTZA
- GAIA – EUSKADIKO TEKNOLOGIA ELEKTRONIKOEN ETA INFORMAZIOAREN INDUSTRIEN ELKARTEA
- HABIC – EUSKADIKO EKIPAMENDU-, ALTZARI-, ETA DISEINU-KLUSTERRA
- HEGAN – BASQUE AEROSPACE CLUSTER
- ITSAS GARAPEN ELKARTEA-FLAG
- KONFEKOOP – EUSKADIKO KOOPERATIBEN KONFEDERAZIOA
- MENDINET – LANDA EREMUEN GARAPENAREN AURRERAPENERAKO ELKARTEA
- MLC – ITS EUSKADI. MUGIKORTASUN ETA LOGISTIKA KLUSTERRA
- SIDEREX – ASOCIACIÓN CLUSTER DE SIDERURGIA
- SPRI TALDEA
- UNIPORT BILBAO – EUSKADIKO LOGISTIKA-PORTUKO KLUSTERRA

## BIZKAIA

- AMOREBIETA – ETXANO UDALA
- BEHARGINTZA BERMEO, MUNDAKA ETA SUKARRIETA
- BILBOKO GANBERA – CÁMARA DE COMERCIO DE BILBAO
- DEE-AED – DURANGALDEKO ENPRESA ELKARTEA
- EGAZ TXORIERRI
- ENKARTUR
- ERMUKO UDALA
- ERROTA FUNDAZIOA
- GETXOLAN
- GORBEIALDE
- INGURALDE
- LANBIDE EKIMENAK
- LEARTIBAI FUNDAZIOA
- MEATZALDEKO BEHARGINTZA
- MUNGIALDEKO BEHARGINTZA

## GIPUZKOA

- BETERRI-BURUNTZA
- BIDASOA ACTIVA – BIDASOA BIZIRIK
- DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
- DEBEGESA
- GOIEKI
- IRAURGI BERRITZEN
- OARSOALDEA
- TOLOSALDEA GARATZEN
- UGGASA
- UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA

## ARABA

- AMURRIO BIDEAN
- ARABAKO GANBERA – CÁMARA DE COMERCIO E INDUSTRIA DE ÁLAVA
- LAUDIO HAZI
- VITORIA-GASTEIZKO UDALA

Aurkitu Euskal Berrikuntzaren Mapan zure agentearen kontaktua:



Informazio gehiago: **www.spri.eus**